

Ainara Elarre Belzunegui
 Prebentzioko teknikaria NLOI
 2011ko Apirila

Emakumeak eta Lan Osasuna

Laneko arriskuen prebentzioa generoaren ikuspegitik. Esku hartzeko proposamenak


PFT honen helburua da informazio eta jarraibide egokiak ematea, **arriskuen ebaluazioak, prebentzioko esku-hartzeak eta osasun arloko ikerketak eta azterlanak bideratzeko**, beren eraginkortasuna hobetze aldera.

Hasteko, aintzat hartu behar da zeharkakotasuna dela **laneko arriskuei generoaren ikuspegitik aitzintzearen** ezaugarri nagusia; izan ere, jarduera sektore guztietan dago, bai eta arriskuak ebaluatzeko, esku-hartze prebentiboko eta osasuna zaintzeko prozesuen fase guztietan ere. Horretaz gainera, kontuan izan behar da oso gutxi garatu dela orain arte.

Egiten dugun proposamena oinarritu da Laneko Osasun eta Segurtasuneko Europako Agentziaren (OSHA) "Emakumea eta osasuna lantokian" *gehien egin diren galderetan*, eta informazio hauek erabili ditu, bertzeak bertze: NLOIren "Emakumeak eta lan osasuna" atarian azaltzen diren azterlanak, ikerketak eta argitalpenak

<https://osha.europa.eu/es/themes/women-and-health-work>

http://www.navarra.es/home_eu/Gobierno+de+Navarra/Organigrama/Los+departamentos/Salud/Organigrama/Estructura+organica/Instituto+Navarro+de+Salud+Laboral/Publicaciones/Salud+y+sociedad/Genero+salud+laboral/?NRMODE=Published



Prebentzioko jardueren gupil zoroa emakumezkoen lanean (K. Messing, 1999)
 658. POT (prebentzioko ohar teknikoa). NME emakumeengan (II): prebentziorako gomendioak



Zer ikustekorik du generoak laneko segurtasunarekin eta osasunarekin?

Laburbilduz esan dezakegu aintzat hartu behar dela emakumezko langileek izan ditzaketen laneko arriskuak gizonezkoek dituztenaz bertzelakoak izaten direla maiz, eta, hortaz, osasunean kalte ezberdinak eragin ditzaketela. Oinarri honek, maiz ezagutzen ez denak, prebentzio-estrategiak aldatu beharra dakar.

Laneko arriskuak honako hauen ondorio dira: enpleguaren ezaugarriena (langabezia tasa handiagoak, kontratu partzial eta aldi baterako gehiago), egiten diren lanena (zeregin horizontalen eta bertikalen banantzea, lansari txikiagoak, sustapenerako eta prestakuntzarako aukerak) eta lanetik kanpoko bizitzaren ezaugarriena (lan gehiago etxean).

Hartara, emakumezko langileen osasun kalte ohikoenak erlasionatuta egon ohi dira nahasmendu muskuloeskeletikoekin, estresarekin lotutako sintomatologiarekin, eta laneko jazarpenarekin eta diskriminazioarekin; horretaz gainera, prozesu kronikoak izan ohi dira akutuak baino maizago.

Oro har aztertuta, ikus dezakegu lan osasunarekin erlasionatutako alderdi asko neutroak direla, hau da, ez dutela generoa kontuan hartzen, eta hortaz, desberdintasunak

betikotzen direla prebentzio arloan: arauetan, politiketan, ikerketetan eta estatistiketan.

Zer da generoaren integrazioa?

Desberdintasunak ez betikotzea ekarriko duena: gizonezkoen eta emakumezkoen ezagutzak integratzea politiken eta programen diseinuan, inplementazioan, jarraipenean eta ebaluazioan, arlo ekonomiko, politiko eta sozial guztietan.

Laneko arriskuen prebentzioari dagokionez, ekarriko du kontuan hartzea genero ezberdintasunak, gehiago ikertzea emakumezko langileentzat garrantzitsuak diren arloak, ez gutxietea izan ditzaketen laneko arriskuak, aukera izatea lan osasunean parte-hartu eta erabakitzeo, eta bermatzea behar diren aurreneurriak hartzen direla.



Zergatik da garrantzitsua emakumezkoek lan osasunean parte hartzea?

Arrazoi moral, demokratiko eta legezkoek gainera, eraginkortasun prebentibo hutsagatik: gizonezko eta emakumezko langileen, bien ala bien, kontsulta eta parte-hartzea funtsezkoa da laneko arrisku eta osasun-kalteei aitzintzeko; hartara, lan osasuneko gaietan beren ikuspuntu, ezagutza eta esperientziak aintzat hartzeak lagun dezake laneko arazoak murrizten, bai eta arintzen ere emakumeek hainbat arlotan –ikuskapena, zuzendaritza, erabaki hartzea eta ordezkaritza sindikaladuten ordezkaritza murrizta.

Esku hartzeko proposamena: generoa kontuan hartzen duen ikuspegi prebentiboa hartzeko jarraibideak

Emakumezko langileen parte-hartzea sustatu eta bermatzeko

- Ikusi dugunez, funtsezkoa da gizonetzko eta emakumezko langileek lan arriskuen prebentzio prozesuaren fase guztietan parte-hartzea; hortaz, gure lanaren puntu giltzarria izanen da:
 - ⇒ Arriskuak identifikatzean zuzeneko informazioa izatea, lanpostuaren deskribapenean edo izenean oinarritu ordez.
 - ⇒ Ez ahaztea kontratu partziala, aldi baterakoa edo ABLEen bidezkoa duten pertsonez, ez eta ebaluazioa egiteko unean bertan ez daudenez ere (baja medikoa, eszedentzia, txanda aldaketa, oporraldia...).
 - ⇒ Eskura jartzea baliabideak, denbora eta espazioa, emakumezkoek ere esku har dezaten arriskuen ebaluazioan, bai eta Segurtasun eta Osasun Batzordearen kontsulta, erabaki eta jardueretan ere.
 - ⇒ Parte-hartze hori lehenesten duten laneko arriskuak ebaluatzeko metodoak erabiltzea.
 - ⇒ Aurreneurriak proposatzera animatzea eta beren iritzia aintzat hartzea neurriok ezartzean.

Arriskuak identifikatu eta ebaluatzean

- Identifikatzea emakumezko langileen arrisku ez hain agerikoak eta osasun arazo ohikoenak, ikuspegi integral eta holistiko batetik, genero ezberdintasun puntualak aurkitzeko (sexu-jazarpena, diskriminazioa, erabakietan parte hartzea, laneko eta familiako bizitza orekatzeko arazoak).
- Saihestea arriskuei buruz aldeztu aurretik sortutako ideiak (zein diren, arriskuan nor dagoen eta arrisku arinak zein diren).
- Aintzat hartzea egoera errealean dauden laneko arriskuak: aztertzea egiazki egiten diren zereginak eta laneko benetako testuingurua, emakumezkoek ere horretan parte hartuz, eta ez sortzea funtsik gabeko iritzia esposizioei buruz, soilik lanpostuaren deskribapena edo izena aintzat hartuz.
- Arriskuak ebaluatzea generoaren eta adin-tarteen arabera.
- Kontuan hartzea arrisku ergonomikoekiko eta psikosozialekiko esposizioak, bai eta haurdunaldirako, amagandiko edoskitzerako eta ugalketarako arrisku izan daitezkeenak ere.

Ebaluatzeko teknikak, metodoak eta metodologia hautatzean

- Erabiltzea ebaluazio kualitatiboko metodologia eta parte-hartzea eskatzen duena, hala nola frantziar eskolaren ikuspegia ergonomiari buruz (658. POT).
<http://www.navarra.es/NR/ronlyres/D91FE499-4898-4EDD-AA09-213A8AF122EA/151669/NTP658.pdf>
- Erabiltzea esposizioen araberako metodo zehatzak eta egokiak, zalantzan jarritz zama fisikoaren arintasuna eta kontuan hartuz lan emozionala, nahi ez diren lan-etendaldiak eta antzeko alderdiak.
- Erabiltzea gizonetzkoen eta emakumezkoen lanak bereiz analizatzeko ikerketa tresna estandarrak, bien esposizioekin amaitzeko espezifikoki garatutakoak.
- Erabiltzea gizonetzkoek eta emakumezkoek erreferentzia taldeen estandar hitzartuen arabera duten statusari buruzko informazioa ematen duten adierazleak.

Osasunerako kalteen ikerketan (lan-istripuak, lanbide-eritasunak eta lanaren ondoriozko bertzelako kalteak)

- Biltzea, sistematikoki, esposizio eta kalteei buruzko datuak, sexuaren arabera.
- Erregistratzea lan osasunaren alderdi guztiak, ez soilik lan istripuak, genero- eta adin-aldagaiak barne, eta ez soilik kontaketa egiteko, baizik eta baita ezberdintasunak aztertzeke ere.
- Datuak biltzea aintzat hartuz lan egindako orduak, sektorea eta okupazioa.
- Erabiltzea zifra espezifikoak eta ez banaz bertzelakoak (lan egindako orduak zeregin espezifiko).
- Ikertzea osasunerako kalteen kasu guztiak: indarkeriagatiko lesioak, laneko eta familiako bizitzen bateraezintasuna estresaren sintomatologia aztertzean...
- Kasu ematea gaur egun arte kontuan hartzen ez ziren kalteei (jardunaren eta hilekoaren edo menopausiaren arazoaren artean egon daitezkeen loturak).
- Zabaltzea emakumezkoen osasunarekin eta beren jardunekin lotutako datuei buruzko ezagutza (azterlan epidemiologikoak, heriotzaren ziurtagiriak...).
- Kritikoki ebaluatzea ikerketa epidemiologikoak, joerak aurkitzeko (eritasun ereduak...), ikerketa metodo hobek garatze aldera.

Esku-hartze prebentiboan

- Lehenestea emakumezkoen istripuak jasateko arrisku gehien dituzten alderdiak, programa espezifikoak eginez.
- Erabiltzea erreferente gisa dagoeneko ezagunak diren eta arrakasta izan duten esperientziak esku-hartze prebentiboari buruzkoak eta generoaren ikuspegitik.
- Proposatzea eta aplikatzea aurreneurri espezifikoak, eta emakumezko langileek ere horretan parte-hartzea.
- Diseinatzea lanpostuak eta hautatzea lan-taldeak eta norbera babesteko ekipamenduak, muturreko pertzentiletan (banaz bertzelatik kanpo) dauden pertsonen erabilgarritasun-irizpideei jarraikiz.
- Gauzatzea arrisku espezifikoari buruzko prestakuntza programak, ezagutzaren, trebetasunen eta gaitasunen alorretan eragina dutenak.
- Lan antolaketari buruzko aldaketak planteatzean, aintzat hartzea zer eragin duten generoaren ikuspegitik eta zein diren lan osasunean dituzten ondorioak.

Genero-berdintasunaren eta laneko arriskuen prebentzioaren integrazioa lortzeko

- Gaur egun arte, genero berdintasuna eta lan arriskuen prebentzioa zein bere aldetik joan da, inolako loturarik gabe ia, eta zaila da ikuspegi aldaketa batetara ohitzea. Dena dela, garrantzitsua da biak ala biak eskutik helduta joatea, horrela erdietsiko baitugu lan-baldintzak hobetzea oro har, eraginkortasunez eta efizientziaz.
- Lan hau errazteko, interesgarria litzateke:
 - ⇒ Berdintasunaren gaineko informazioa eta prestakuntza ematea segurtasun- eta osasun- eragileei: gerentzia, ordezkari sindikalak, prebentzioko zerbitzua...
 - ⇒ Prebentzioko teknikariek genero-ikuspegia izan dezatela bermatzea, berdintasunaren gaineko informazioa eta prestakuntza emanez, eguneroko lanean aplikatzeko.
 - ⇒ Lanean loturak ezartzea berdintasun-ekintzen eta segurtasun eta osasun arloko ekintzen artean: lan-baldintzak aintzat hartzea berdintasun arloko politiketan, eta sexu-jazarpena eta laneko eta familiako eginkizunak batera eramatea, lan osasunean.
 - ⇒ Esku-hartze prebentiboko neurri orokor gisa hartzea lanpostuaren aberastea eta lanorduen hobetzea, lana eta lanetik kanpoko bizitza hobeki orekatzeko.